



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Guretzat, bezeroa funtsezko faktorea da gure enpresan, haiek gabe hori ezinezkoa izango litzatekeelako; horregatik, haientzat onena nahi dugu beti, horrela, gurekin komunikatzeko baliabideak erraztuz, beraien denbora aurrezteko moduan. Aldi berean, gurekin erlazioa erraza bada beraien dudak lehenbailehen argituko dira, eta hori da guri interesatzen zaigun lehenengo gauza.

Gure bezeroak gurekin harremanean jartzeko komunikabide erosoena gure web orria izango da: [electrobium](#). Bertan gure kablearen ezaugarriak eta nola erabiltzen den agertuko da besteak beste.



Bezeroak gure enpresari buruzko mesfidantza sentitzen badu, eta informazioa nahi badu edo gurekin harremanetan jarri nahi badu, gure enpresa-kontuaren bidez egongo gara eskuragarri sare sozialetan: Instagram, Facebook eta Twiter. Halaber, gure posta elektronikoa: electrobium@gmail.com eta telefono zenbakia: **147-852-3691** aurkituko ditu gure webgunean zalantzak argitu ahal izateko.

Ikusita Instagram dela une honetako sare sozial erabilienetako bat, Instagram kontu bat izango dugu **@electrobium_** deiturikoa. Kontu honetan, bezeroak gure produktuen argazkiak aurkitu ahal izango ditu eta, denbora berean, app honen bidez eskatu eta erosi ahal izango ditu. Baita instagram kontua gure enpresari bezeroarekiko harremana erraztuko digu, bertan app honetan dauden “story”-tatik galderak eta inkestak egingo ditugulako. Aldi berean zozketak antolatuko ditugu gure burua ezagutarazteko, eta bezeroak argazki bat argitaratuko du, kargagailua eta guzti, **#tucargadordeconfianza** jarriz eta gure kontua izendatuz guk jakin ahal izateko zozketan parte hartzen ari dela. Honen bidez, like gehien dituen posta zozketa irabaziko du eta gure produktuen artean bat erabaki ahal izango du. Are gehiago, bezeroak honela nahi badu, kargadorea pertsonalizatu ahal izango du.





Gure web orriak funtzio hau izango du: bezeroa gure webgunean harpidetzen denean, interesatzen zaion berritasunen bat dagoen bakoitzean posta elektronikora iritsiko zaizkion jakinarazpenak aktibatzeke aukera izango du.

Beste aldetik, bezeroa ez badago pozik jasotako produktuarekin; dela bere itzaropenak ez betetzeagatik, dela produktuak garraioan jasan dezakeen kalteren batengatik, komunikazioa azkarra eta eraginkorra izango da. Enpresako postaren bidez, enpresaren itzulketen sailarekin harremanetan jarriko da, eta produktua itzultzea erraztuko zaie.